

GIG 37

ALGORRI-PORTUTXIKIKO MAREARTEKO ZABALGUNEA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,63**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Deba eta Zumaia arteko itsasbazterreko biotopoko marearteko zabalgunea ikaragarri ederra da, eta Kantauri itsasoko ertzean diren abrasio-plataforma guztien artean ikusgarrienetako bat. Luzean duen hedadura handiagatik eta eremuaren garapenagatik nabarmentzen da, batik bat.

Algorri eta Portutxiki arteko abrasio-plataformak 3,2 km ditu alderik alde, eta itsasbeheran soilik geratzen da agerian; leku batzuetan, 300 metrotik gora zabal ere bada itsaslabarraren oinetik. Gainazal handi horrek % 1eko malda du, batez beste, eta itsaslabarrak atzera egitearen ondorioz sortu da. Agerian geratuz joan den heinean, itsasoak eta harribilek higatu egin dute apurka-apurka, eta horrela sortu dira zabalgunearen zenbait lekutan dauden ohiko gainazal leun horiek. Higadura diferentzial horrek era askotako egiturak sortu ditu zabalgunean, hala nola kanalak, lapikoak, sakonuneak, hormak eta hamaika zoko, eta horien guztien babesean ekosistema oparoa sortu da inguruan: Euskal Autonomia Erkidegoan den ekosistema konplexu eta aberatsenetako bat.

Itsas hondoa kartografia egin dago, eta gaur egun kostalde dagoen lekutik 8 kilometroraino jarrai dakioko plataformari; han, 80 metrokoa da sakonera. Zeharkako ebakidura eginda, zenbait maila ikusten dira, koska txiki banaz bereizita, eta pentsa liteke, beraz, itsas maila gaur egun baino beherago zegoen garaietan sortutako antzinako plataformak eta itsaslabarrak direla.

NOLA BERTARATU

Hiru lekutara joan daiteke plataforma ikustera: Algorriko begiratokira (GIG 17), Elorriagakora (GIG 36) eta Portutxikikora (GIG 15).

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Elorriagako bidea, Algorriko begiratokia, Elorriagakora eta Portutxikikoa dira lekuri onenak. Ez da komeni marearteko zabalgunean sartzea.



Arantzazpiko marearteko zabalgunea, itsasaldetik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 556800 m / Y= 4793921 m / Alt.= 1 m



Zabalguneko mendebaldeko ertzean, Elorriagako begiratokitik ikusita.